

An illustration of a man with dark hair and a beard, wearing a maroon sweater, holding a baby. The baby is wearing a blue floral dress and a grey blanket with a brown bear face. The background is a warm, textured yellow-orange color.

Aita

– Ritxar Bacete –
Jordi Solanoren ilustrazioak

Aita

– Ritxar Bacete –
Jordi Solanoren ilustrazioak



Baobab, 2023

infoinfantilyjuvenil@planeta.es
www.baobabalbums.es
www.planetadelibrosinfantilyjuvenil.com
www.planetadelibros.com
Editorial Planeta, SAK argitaratua

© testuarena: Ritxar Bacete, 2021
© ilustrazioena: Jordi Solano, 2021
© itzulpenarena: Mario Unamuno, 2023
© Editorial Planeta, SA, 2021, 2023
Avda. Diagonal, 662-664, 08034 Bartzelona (Espainia)

Lehen edizioa: 2023ko otsaila
ISBN: 978-84-08-25917-6
Lege-gordailua: B. 427-2023
Espainian inprimatua

Liburu hau inprimatzeko erabilitako papera ehuneko ehun klororik gabeko paper ekologikoa da, eta kudeaketa iraunkorreko basoetatik dator.

Galarazita dago liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, sistema informatiko batean sartzea, bai eta edozein forma edo bitarteko erabiliz besterentzea, dela metodo elektronikoa, mekanikoa, fotokopia bidezkoa, grabazioa edo beste edozeinen bidez, baldin eta editoreak ez badu aldez aurretik eta idatziz baimendu. Aipaturiko eskubideen urraketa jabetza intelektualaren kontrako delitutzat jo daiteke (Zigor Kodearen 270. artikulua eta ondokoak). Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jo ezazu CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos), www.conlicencia.com webgunean sartuta, edo telefonoz, zenbaki hauetara deituta: 91 702 19 70 / 93 272 04 47.

Aita bat orrialde bakoitzeko

Nire aita, kobazuloetakoa	12
Nire aita, mendietan barrena.....	14
Nire aita, tematia hura bezalakorik.....	16
Nire aita, esaneko gizona	18
Nire aita, maisuetan maisu.....	20
Nire aita, hura bai gizon samurra.....	22
Nire aita, etsi-etsian	24
Nire aita, alde ilunekoa	26
Nire aita, asmalari	28
Nire aita, larreetan nekazari.....	30
Nire aita eta boterea.....	32
Nire aita, bilau halakoa	34
Nire aita, munstro halakoa	36
Nire aita, Ironman	38
Nire aita, aparta benetan	40
Nire aita, adorez jantzia.....	42
Nire aita, mamu-ehiztari.....	44
Nire aita, beti alboan	46
Nire aita eta samuraien indarra	48
Nire aitak nigan sinesten du.....	50
Nire aita, ekaitzetan flotagailu	52
Nire aita, hura bai txapelduna.....	54
Nire aita, faraoi.....	56
Nire aita, aldatze bidean.....	58
Nire aita, atxikimenduan eredu.....	60

Nire aita, kobazuloetako

Nire aita Manu deitzen da, eta ez da inoiz nire albotik aldentzen.

Badakit desberdina naizela, ezin dudalako korrika egin, ez ibaira harririk bota, ezta nire eskutik basoko fruitu goxorik jan ere. Ezin dut, ezta ere, behar dudana eskatzeko hitz egin. Bada zerbait nire barruan gainerako neska eta mutilengandik desberdin egiten nauena. Oihu, negar eta irribarre, hori da egin dezakedan guztia.

Baina ez dut gehiagoren beharrik, alboan dudalako beti aitarik kuttunena, adi-adi beti, nire begietan irakurtzen du zer behar dudan, eta huraxe ematen dit.

Anai-arreba asko ditut, baita osaba-izebak ere, lehengusu eta amonak, eta horiek ere zaintzen naute... Askok gara klanean, baina ez dakidanez zenbatzen, ezin dut esan zenbat guztira.

Amak ere beroa ematen dit, eta nitaz arduratzen da ahal duen guzian; baina titia ematen dio besoetan duen haurtxo txikiari, eta lehenago beste bat izan zuen, eta horren aurretik beste bat ere. Hartara, ezin da denbora osoz nirekin egon.

Hori bai, badakit nire izena, Benjamina, horrela deitzen nautelako. Pilo bat gustatzen zait nire izenak belarrian egiten duen soinua: Benjamina!

Badakit udaberria iristear dela; izan ere, gaur ere hotz handia egin duen eta zorua izoztuta egon den arren, kobazulotik goizean goiz atera eta hegoalderantz abiatu gara, ibai-ertza jarraituz. Lehen fruitu eta sustraiak bildu behar ditugu, negu gorria pasa ondoren zer jan eduki dezagun.

Aita taldearen atzealdean doa. Bere bizkar gainean eramaten nau beti, ibaiak bezain zabal den bizkar gainean. Pilo bat gustatzen zait aitari darion usaina, erdi gozo, erdi garratz, baina batez ere darion beroa gustatzen zait. Punta zorrotzeko makila batek lagunduta dabil, erori ez gaitezen, baina baita berriro ere sable horzdun tigre bat agertzen bazaigu, hari aurre egiteko. A zer beldurra pasa genuen lehen aldi hartan! Makilaz gain, harri zorrotzu batzuk daramatza bisonte-azalez egin zuen zorro batean, sustraiak lurpetik ateratzeko eta bidean aurkitzen ditugun animalien haragia ebakitzeko

Nire munduan ulertzen ez ditudan gauza asko daude, baina nire aitari lotuta, nire klanari jarraiki, munduan leku bat dudala sentitzen dut... eta zoriontsua naiz.



Nire aita, mendietan barrena

Aisholpan deitzen naiz, nire izenak «goizeko izar» esan nahi du. Arranoen erresuman bizi naiz, ordoki amaiezinen eta neguan elurrak zuriz estaltzen dituen mendi takarren herrialdean, non haizeak lehoi emeen antzera orro egiten duen.

Ehiztaria naiz. Baina nire herrian arma oso berezi bat baliatzen dugu ehizarako: arranoak. Beraz, nire maskota ez da txakur edo katu bat, ezta hamster bat ere, arrano beltz bat baizik, Luma Zuri izenekoa. Ezagutzen dudan arranorik ausart eta indartsuena da. Luma Zuri hegan ikusten dudanean, aske sentitzen naiz, bere hegoetan uzkuertuta eramango banindu bezala.

Han goitik mendiak ikus ditzaket arranoaren begien bitartez, eta haize izoztua nabaritu nire azalean. Magia ematen du, ni arranoaren baitan banengo bezala, eta bera nigan.

Ondo gogoan dut aitari arrano bidezko ehiztaria izan nahi nuela esan nion eguna, bere gisara. Adineko senideek diote emakumeok ez dugula bi metro eta zazpi kilo har ditzaketen basa-hegaztiak entrenatzeko behar beste indarrik, baina aitak bazekien ez ninduela mundu honetan beste ezerk hain zoriontsu egingo, arranoetatik gertu egoteak baino. Beraz, munduko gauzarik natural eta arruntena iruditu zitzaion. Aita eta biok bakarrik geratzen ginenean, hauxe esaten zidan: «Lortuko duzu, alaba maitea, sendoa zara, ausarta zara. Ez inork, ez ezerk, ez dizu eragotziko zure ametsak betetzea».

Ostirala dut asteko egunik gogokoena. Eskolatik irten orduko, korrika bizian itzultzen naiz etxera, zaldia zelatu, arranoa sorbaldan hartu, eta elurrak estalitako mendi artean barneratzen naiz Agalai aitarekin batera. Halakoetan, ez da mundu zabalean ni baino neskato zoriontsuagorik. Sutondoan eseri eta aita kontu kontari hasten zaidanean, denbora gelditu egiten dela sentitzen dut. Agalaik gizon serioa dirudi, gainerakoekin hitz gutxikoa da, baina nirekin ez. Munduko aitarik maitekorrena da... eta baita burugogorrena ere!

Ia-ia ni bezain burugogorra da. Buruan zerbait sartzen zaidanean, ez dut amore emango hura lortu arte. Hamahiru urte bete nituenean Arrano Beltzen jaialdian hartu nuen parte, hots, arrano bidezko ehizako txapelketa garrantzitsuenean. Hirurogeita hamazortzi gizonekin lehiatu nintzen. Neuk irabazi nuen. Eta ez hori bakarrik, gainera ehiza-marka egin nuen. Baina saririk ederrena aitaren begietan halako harrotasun-begirada ikustea izan zen. Zinez, benetan burugogorra izango dut aita, baina bularraldean kabitu ezineko bihotz erraldoia dauka.



Nire aita, tematia hura bezalakorik...

Gu zaintzeaz eta janaria prestatzeaz gain, aita mundua aldatzen tematu da.

Nire aita dela jakingo ez banu, superheroi bat dela pentsatuko nuke, superheroi negarti eta biboteduna.

Ondo-ondoan dut beti aita, arnasten dugun airea bezala; aita guztien zatitxoez egina da. Gainera, poesia idazten du, eta totelka aritzen da urduritzen denean.

Ez dut bizitza erraza izan. Herrialde eder batean jaio nintzen, paradisuaren hurrena dela pentsa liteke. Oso historia aberatsa dugu, baina gure jendea txiroa da oso. Bakerik gabe bizi gara oso aspalditik. Han oso zaila da emakumea izatea. Neska askori ez diete uzten eskolara joaten, eta handitzen direnean gorputz osoa estaltzera behartzen dituzte, burua ere bai, espetxe eramangarria ematen duen jantzi baten azpian.

Jaio nintzenean, ez zuten festa batekin ospatu, mutilekin egiten den bezala. Gure herrialdean askok uste du, oraindik ere, neskek ez dutela halako ohorerik merezi. Baina nire aita desberdina da; beraz, sehaska barruan fruitu lehorrak, gozokiak eta txanponak botatzeko eskatu zien senide eta lagunei, mutilekin bezala. Aitari ez zitzaion inporta ni neska izate; are gehiago, harro zegoen horretaz.

Aitak merezi dudan etorkizuna nahi izan du beti niretzat: gortina baten atzean ezkutatu beharrean, eskolara joan nendin tematu zen. Hara, ez zuen ba berak eskola bat sortu, joaterik izan nezan!

Baina behin batean, «gerra-jauntxoek», neskak eskolatatik kanpo nahi gaituzten horriek, deskubritu egin ninduten, eta min handia egin zidaten. Lanak izan nituen osatu eta neure onera itzultzeko, eta ihes egin behar izan genuen gure herrialdetik, baina munduak nire berri jakin zezan nahi zuen aitak, aurrerantzean beste ezein neskak ez dezan nire trantze berbera jasan beharrik izan.

Amak inspirazioa eman zidan, eta aitak hegoak, hegan egiteko.

Gaur egun, mundu zabaleko neska askoren inspirazio-iturria bihurtu naiz, antza. Eta nik gauza bakarra nahi dut: horien aitak ere nirea bezain burugogor eta tematiak izan daitezela, nirea bezain inperfektuak, akastun zoragarri halakoak...

